



Efoma-Batlikano'fik.

—Kepa Deuna'ren egunean, oi daben lez, Aita Santua'k Apostoluen buru izan zan Kepa Deuna'ren ilobia iker-tu eban. Gure Yauna agurtu ta Agurtza Deuna esan ondoren, ilobiaren aufean otoi egin eta «Pallium»ak onetsi zituan, eta XIV'n Benedito'k emon eban kutxa baten gorde zitezuan. Gero X'n Pio ta XV'n Benedito'ren ilobi-aufean otoi egi eban.

—Aita Santua ikertu dabenen artean onexek izan dira: 100 bidezti ungaritarak; «Strathuaver» itxasontziko 45 inditar Goa'koak. Abade bafi taldeak oin ikasketak Efoma'n amaitu ta euren abefietara doazanak, onein artean Skozia, Frønce ta Españar taldeak izan dira. Aita Santua'k euren ofietan egin bear lanatzaz itz batzuk esanaz onetsi ditu.

—Baita andikiro ikertu dau, Bolivia'ko latefi ordelari bereziak David Albestegi yanak. Egunokaz egin ditue bakeak, Paraguay'gaz euki daben ganorabako gudan, petrolio bazkunak batzuei eta besteai laguntzen izan dautsielako. Aita Santua'k bere poza agertu dautso bakea egin dabelako.

Efoma'ko 50 itsu gudaldian ikusmena galdu ebanak be ikertu dabe. Aita Santua'k itzaldi egoki bat egin eutsen. Ofez gañera bere ofietan izan ditu Aita Santua'k italitar Katoliko-Ekintza-ko gastediñ zuzentzaleak. Onu edefak emon eutsezan gastedia zuzentzeko.

Izpañingi-Erakusketa.

Aita Santua'k ontzat emon dau, lengo baten esan genduanaz, datofen urtean egingo dan izpañingi katolikotafan Erakusketako egitamua. Berarizko etxe bat irogiko da 6.000 metro lautiko izango dituana, ogetamar aretogaz, europar eta beste aldeetako izpañingiak euren erakusketak ipiñi dayezan.

Bakea egileko Batzafa.

Buenos Aires'en bildu da Bolivia ta Paraguay'en arteko bake itunbena egiteko. Justo gudalburu ta Arjentina'ko Lendakaria izan da buru. Aurfetik asmo eder eta kistaña izan dabe. Yaupa bat Bakea'ren Andra Maria'ren aufean esan eragin dabe, Bolivia ta Paraguay'ko Ordeleriak bertan izanik. Orixe da bidea. Eta oitura eder au «laiko» diran latefietan be ikusten da. Egunokaz, Paris'en Akademia'ko irurengafan urtea ospatzeko, bertako eleizatxoan yaupa bat Braudillart agurgariak emon dau Erkal-Lendakari ta gizon ospetsuak bertan zirala. Izan be gauza onak ez dakafela txafik esan oi da.

Txekoslobakia'ko Katoliko-Batzafa.

Bagiia-27'tik 30'ra Praga'n egin dan Katoliko - Batzafa, katolikotafentzat garaitza aundi bat izan da. Aita Santua'k bere Ordeleritzat Verdier Paris'ko kardenal agurgaria bialdu dau. Agintariak, Lendakariak berak be afe-rarik onena egin eutsen, gexorik dagon yauregian ikertu ebanean. Aita Santua'ren izenean agurtu eban.

Batzar onen asieran iru Kardenal, Gongotzain bi eta latefiko Gotzain gustiak izan ziran. Ofez gañera, sasp-i ministro, Lendakari Masarik'en semea eta 33 latefitako ordelariak euron artean, Rusia, Mexiko ta Turkia'koak.

Batzafaldiak izugañizko notintzaz ezin ziran eta gasteak egin ebenean bakafik, bildu ziranak 25.000 izan ziran. Kepa Deuna'ren egunean yai zoragafia egin zan. An ziran Sramek eta Dostalek «ministroak», latefi-ordelari gustiak eta lau gudalburu, Praga'ko efi agintariakaz batean. Erkal Lendakariak bere ordeko berarizkoa bialdu eban. Gizoste izugañia zelayan bialdu ta 32 metroko Kurutzaren ofietan, an

eldu ziran gustiak Bateo deuneko eskintzak bafiztau zitezuan ziñestea aurtortuaz.

Txekoslobakia'ko latefian sei izkuntzakoak bizi dira-ta, *bakoitzari bere ikuntzan* itaunak sei Gotzainak egin eutsezan. Era onetan eskintza oneik egin ziran: Txekeraz, Slovakera, Rutenerez, Doixeraz, Magiareraz eta Polakeraz. Ziñeste autortze au gustiak andiko «Siñesten dot», abestuaz amaitu zan.

Baña yairik zoragafia azkenengo egunean izan zan. Gotzai-Meza Verdier kardenal agurgariak abestu eban, 600.000 lagun bertan zirala. Strahoc'eko yolastokia munduko audienetako da. Maletan bakafik 250.000 lagun yafita egon leitekez. Egun ofetan bultzitan bakafik 70 berarizkoak eldu ziran. Goizparkia abestu ondoren sei izkuntzatan entzuleak irakufi eutsen. Eta Meza ondoren «Te Deum» abestu ta Aita Santua'ren onespenez amaitu egundoko edefena izan dan Katoliko -Batzar au.

Yugoeslavia'ko Eukaristi-Batzafa.

Ia Praga'koaz batera, Lubiana, Yugoslabia'n Eukaristi-Batzar zoragafi bat egin da. Aita Santua'k bere Ordeleritzat Hlond, Polonia'ko kardenala autu eban. Izugañizko afera egin eutsen, bidean gelditu bear ez eban tokietan be, gizoste izugañien eskariz agur egiteko gelditu bear izan eban, Kardenal agurgafi au, Txekoslobakia'ko batzafean izan ondoren, Lubiana'ra aldatu zan, eta an agintarien agufari euren izkuntzan eslobeneraz erantzun ondoren, Gotzain eleizaren aufean Gotzain gustiak agurtu ta lenengo Batzafa egin zan, Aita Santua'ren agiriak lateraz, serbo-kroateraz eta slobeneraz irakufi ondoren. Veglia'ko Gotzainak itzaldi edefaz asi eban, eta ondoren yafaitu eban oi diran batzafan gaste, gizonezko emakume ta umeentzat. Umeen yaunartza zoragafia izan zan. Gotzain bi ta 85 abadek Yauna umeai emon eutsen. 30.000 uferatu ziran. Gau-gurtzaleak, eleiza gustietan euren eleizkizunak euki ebazan. Eukaristi-batzar ospetsu au, oi dan Gotzain -Mezeagaz amaitu zan, «De Angelis» eldu ziran 150.000 lagunak abestuta. Nok esan oin amar urte onango yaj zoragafiak Txekoslobakia ta Yugoslabia egingo zirala! Baña oin konturatu dira agintariak eta efiak Eleiza Katolikoaren laguntasun barik ez dala bakerik ofietan.

Txiña'ko Ministroen buru Izendakoen Meza bafila.

Beñola Txiña'ko arazorik astunenak esku-artean erabili zituan Lou Tseng-Tsuang, gaur Lou aba beneditafak, Kepa deunaren egunean abadegintza artu dau. Txiña'n Aita Santuaren Ordeleri izan zan Konstantini agurgariak abadegintza emon dautso. Abade bafi au urte askotan San Petersburgo'n eta Olanda'ren Txina'n ordelari izan ondoren, eskonduta amar urte bafu katoliko egin zan 1909'n urtean. Geroztik, ministro urte askotan, 1913 Txiña'ko Gobernuo buru, eta 1918 1919'n Versailles'ko bake itunbanean Txiña'ren ordelari izan zan eta berak be izenbetu eban. Abadegintzako eleizkizunean, Txiña'ko agintariak ordelaria bialdu dabe, eta erkaldafi Lendakariak, Chank-Kai-Chek gudalburu eta gizonik ospetsuenak bere zorion-agufik beroenak bialdu dautsez yauparitzta artu daben egunean. Aba Lou Txina bide onera ekartzeaz asko arduratzen da.

India ta Txiña'ko beste izpar katzuk

—*Bide onera.* Ling Chi Ping emakume ospetsua be, urte onetako Orifa 31'n Paolo Yü Pin abade agurgariak bateatu dau. Andre au oso ospetsua da, Txiña'n efuki egintzaren alde egin dituan lanak dirala-ta. Pekin'go Landef



IZPARAK BIZKAYA

Mañari.

Lenengo barikuan
Josu'ren Bijotz Deun - deuna'ren aintzarako, saspi-retako mezan Jau-nartziak eta otritzak egin ziran. Aintza beraril

Juan-etorijak.
—Ereño'ra juañ zan obiratze bate-ra, gure txauburu jauna.

—Egubenez egon zan emen Artaraz Aña, Indotxina'ko Gotzain agurgarija.

Gexorik.
Egunontan gexorik aurkitzen da, Ikabaltzeta'tar Kerman mufila. Osasuna opa.

Suglak elduta.
Suglak elduta makalik aurkitzen dira, Lafea'tar Sekunde andera ta Matzaga'tar Miren neskatila. Arduraz ibilteko da; aurten bedar-artian suge askotxo dabil-eta. Osatuko aldira arin.

Kukua.
Aurtengo biarkuna sekuleko onduen betetuta gero, txori begiko, onek lengo astian iges-egin euskun, eta ez agur eta ez adio, bape jaramon barik iges-egin be. Sentimentu galantala...

Intxauria.
Ugeri aurten. Zugatzak garaunez beterik dagoz; afikada batagaz esku-bete ardura barik eratzi leikijuez-ta. Dagonila'ren azkenerantza, gure mutikuak lo eztira egongo...

Eguraldija.
Ontxe bero ta ontxe ozkifi, eguraldijak ifi. Orain baña, gari-ebatiari eta ekiteko eguraldi beroa biar da; garijak esku-eskurako dagoz ontxe-ta. Artoak eta enparau landarak ostera, euri bafian dagoz. Goitik zer datofen ikusiko dogu. «Goiko Uga-zaba Jauna, geu adi bagagoz, adi egongo yaku».

Uste bako konbidauak.
Lengo larunbatez ijito pilo andijak efitratu yakuzan. Eta beti lez, an afapau ta emen afepau, efi gustija euren-a izan bailitzan ibili ziran. Geuri be kerexa - zugatza ederto mufituta itxi euskuben; eta ganera, zugatz-adafetik dingiliz egoan «karaketua» be bape lotsa barik eroan. jEguno olakorik! Beñola «katasketa» ko agura zafak, «larakua» ostu eutzoenian esan eban lez esan biarko. «Jente txafa, jente txafa».

MAÑARIKO

Erigoiti.

1829
Urtafien zortzian etofi zan elezea

-etxe'ko zuzendari da. Zoritxafekoaj laguntzen lan asko egin dau, eta lan bikain onetan katolikotafakin artu-emonak izan dituanean goiko argiak yo ta urte bete onetan asko ikasi ondoren katoliko egitea erabagi dau. Izan be geidea maitatzen dabenak, Yaungoikoa'ren yauferitik ufin ez dabil be.

Tarakkudy'ko ziñesgeen abadea be bere menpeko 190 lagunakaz, katoliko biurtu da. Ziñesge gurkeran erabilten izan dituan tresna gustiak, katolikotar Gotzain T. Roche agurgariari eroan dautsoz.

M.'tar G.

ikusten D. Millan Lopez Dabalos de Lafea. Mayordomu Pedro de Uribe izan zan.

1830

Mayordomu Domingo de Etxebafieta izan zan. Gernika'ra eroan zituen umeak Sendatza edo Konfirmaziñoa artzen.

1831

Juan Jose de Afien zan mayordomu. Diputaziñoari emon eutsazan efegeak patroari toketan yakozan amafenak eta arek emon eutsazan elexeari, baña erdiak kajako umientzat izan daitezuan. Elexeari deusala dagoan etxea emon eutsien efiari, baña bederatzi urtetik bederatzi urtera m'siñoak egiteko kondiziñoagaz. Sendatza artzen Aulestia'ra eroan zituen nmeak. Larogeta bi erlegaz geratu zan elezea.

1832

Mayordomu Domingo de Madariaga zan.

1833

Juan de Guafotxena zan mayordomu. Eskola maixua D. Juan Mariano de Velez.

1834

Antonio de Oar-Arteta zan mayordomu. Tropearri saldu eutsiezan egur batzuk. Ayuntamentuari emon eutsiezan befeun eta amazortzi anega gari, gefako gastuetarako. Efe-tablu zafa tofera bastertu eban.

1835

Jose de Agife zan mayordomu. Tropen efaziñoa pagetako emon eutsiezan efiari ogeta amaika anega gari.

1826

Jose de Madariaga zan mayordomu. Zirujanu edo barberua D. Domingo de Onandia.

1837

Mayordomu Marcelo de Uribe zan.

1838

Tomás de Ituñi zan mayordomu. Juan Bta. Azpitarte'k egin eban Nazarenoa gordetako lekua.

1839

Juan Antonio de Guezuraga zan mayordomu. Juan Benito de Tofezuri patroien admin'istradorea. Duñabestia abadeagaz izan eban demanda bat.

S.

Akorda.

Goizeko amafak, eta astartia. Gaurko eguna Akordafentzat benetan zoragafiya. Idazkortzau eskubetan artuten dodan sasoi onetan efi gustija dago geure Gotzain agurgariaren zain, berari jaokan azeria egiteko. Emakume langileak ainbat lan eder egin daukute juañ jakun as-tean, bardin aste onetako egun bijotan, garbitasun eta spainketa arazuetan. Eskefak eurari geure txadonak arpegi bafiz dirudi. Elexepe inguruak bai bafuz, bardin kanpotik zurifuta akertuten jakuz. Geure umetxuak, be gaur afatsaldian garbi ta zuriz agertuko jakuz. Bein sendabideko igortza ospatuta, poztasuna ta efiaren bijotz-agufa Gotzain jaunari erakutsiko dautsaguz. jZabaldu eiguzu zeure onspena ta geure bijotzak zabalduko jakuz!

Ganian doguz efiko «Santa Mañe» jayak, beraz geure mutil gustiak ja-

yok gertatzeko auferatu jakuz. Txindija dabe jayok «tayuz» atonduteko biar daben lenengo «tramankulua». Txindijau ba'lebe, iñun ezlako gauzak gertauko ei leukiez. Neure aldetik, jayok euzkal-usaindunak ba'dira, laguntasuna ixango dozube. Baña... jayok atzeñi usaindunak ba'lira, asketsi, parkatu ba beste baterarte ezin ixango neukixube lagundu.

Igandean Ibañangelua'ko U. B. B. iragañita eukan alderdikide batzafa ospatu zan. Ikusi gendubanez txindija ufi dago. Au dala-ta, gastiak lanari goratu bifa dabe. Antzerkijak egin biar doguz, eta oztea arakatu.

Txaunburu jauna ondiño makalik dogu. Obarantz dua lakua esan euskun, baña gexo margua baita begi-espan iluntxuak aldian difu. Igandean elezako zeregiñak egiten Merikae-txebafia'tar Joseba Ibañangelua'ko abade txauneskindari jagua ixan gendun.

Geure artian Daniel ta Justa senar-emestiak ixan doguz. Baita «Goikotzeko» Isidro'n efena be ementxe ikusi dogu.

Jakin dogunez, Zornotza'n igandean Kristiñau-Ikessbide-jaya zaletasun osuagaz ta edertasunik andijena-gaz ospatua ixan ei da. Asko poztuten gara.

OGONOPE

Azalgayak: afera, (rec.bimiento) onespén, (bend.c'ón) atzeñi, (extranjero) oztea, (gente) arakatu (averiguar) margo, (color) txauneskindari, (organista) jayua (experto).

Galdakano.

Ezbiara.
Igaro zan larunbata - afatsaldian Puente La Tofe'n tximist-bultzi batek jo eban 14 ilabeteko neskatotzu bat. Efi onetan lenengo begiratziya eginda, Bilbao'ko erifegira eruan eban ta neskatotzu gixagaxua txarto ei dago.

Juan-Etorijak.
Ezkontzako ibilaldija eginda gero, geure artian aurkitzen da Ogitza'tar Tiburtzi beren emaztiagaz. Zorionak.

Kirolak.
Igande-goizlan, Elezalde'ko ostiko-tokijan jokatu eban «C'clista» ta «Catequesis», Elezalde'k antolatuta daukon txepelketarako, ta lenganuko irabazi eban 2 ta 0 gaitik.

Afastian jokatu eban Gogo - Ona ta Umore-Onak, ta bigafenok irabazi eban 2 ta 1 gaitik,

GOIKOKO

Eleiz - Jantzi ta urregintza A. Rui-Wamba
Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238
BILBAO

Gaztelu-Elexabeitia.

Udatea.
Aurtengoa, orain artean toki ontan beintzat, egualdiak be eztabela bear dan eran laguntzen da, beste urtetan baño jausitsuago agertzen da. Iñoiz baño oste geyago uste ei-zan, baña ustelari onek jazopen au bear dan